

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2118

AGINDUA, 2023ko apirilaren 25ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, 2022ko azaroaren 17ko Aginduaren bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioi lan-kontratuko langileentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaien osaera aldatzeko dena.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko azaroaren 17ko Aginduaren bidez, besteak beste, honako prozesu honen deialdia egin zen:

– Medikuen (Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia) enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesua.

2023ko otsailaren 13ko Aginduaren bidez, hautaketa-prozesu horretako epaimahaian parte hartu behar duten pertsonak izendatu ziren.

Medikuen (Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia) enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan epaimahaiko epaimahaiburua titular izendatutako pertsona abstentziorako legezko kausa batean sartuta dago, eta, beraz, epaimahai horren osaera aldatu behar da.

Horrenbestez, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.8 artikuluan xedatzen denaren arabera, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Aldatzea Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren bidez ezarritako Medikuen (Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia) enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan epaimahaiaren osaera, epaimahaiburua titular gisa izendatutako pertsonari dagokionez, eta Iñigo Aizpurua Imaz izendatzea.

Izendatutako pertsonak osatuko du aipatutako epaimahaia, salbu eta ezgaitasun, ezintasun edo legezko bateraezintasunen bat, abstentzio-kausaren bat edo ezinbesteko kausaren bat ikusten badu Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak.

Bigarren artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritz, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 25a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.